

2018ko apirilak 30,

Hautetsi Andre/Jauna

Datorren maiatzaren 27an —igandea— Gure Esku Dagok Euskal Herriko alkate eta udal hautetsiak elkartuko dituen agerraldia deituko du Gernikan. Ekimenean erabakitzeko eskubidearen aldeko manifestu bat babestuko da eta ekainaren 10ean Bilbo, Gasteiz eta Donostia elkartuko dituen giza katean parte hartzeko deia egingo da

Garai historikoa bizi dugu, eta erabakitzera eramango gaituen aro berri bat ireki nahi badugu, ezinbestean urrats berriak egin behar ditugu. Elkarrekin. Beste behin, herritarrok gure protagonismoa erakutsiko dugu giza katean; ziklo berri bati hasiera emateko prest gaudela eta erabakitzeko determinazio osoa dugula adieraziko dugu.

Bidea elkarrekin egin behar dugula argi dugu; eragile, erakunde eta herritarrak bat eginik, eskutik helduta, bakoitza bere esparruan bere esku dagoen guztia eginez, norabide berean. Hori da, hain zuzen ere, maiatzaren 27ko agerraldian adieraziko duguna.

Gutun honen bidez, maiatzaren 27an Gernikan egingo dugun agerraldira gonbidatu nahi zaitu Gure Esku Dagok. Topaketa eguerdiko 12.00etan izango da, Gernikako Anfiteatroan, eta bertan mezu honi erantsi diogun adierazpena irakurriko da.

Antolakuntza lanak laguntzeko, aldezturik izena ematea eskertuko dizugu, ondorengo estekan duzun formularioa betez.
https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdf3_RqVeIADsDg3tFJx14KePDpeXFegs0qgXKihnaa8YizLw/viewform

Maiatzaren 27an gurekin izango zarela,

Jaso ezazu agur bero bat,

Hautetsi Andre/Jauna:

El próximo 27 de mayo Gure Esku Dago quiere reunir a cargos electos locales en un acto en Gernika. El objetivo del acto es dar lectura a un manifiesto a favor del derecho a decidir y hacer un llamamiento a la ciudadanía para que participe en la cadena humana que unirá Bilbo, Gasteiz y Donostia el 10 de junio.

Vivimos un momento histórico y si queremos abrir una nueva etapa que nos lleve a ejercer el derecho a decidir, es necesario dar nuevos pasos. Juntos. El 10 de junio, una vez más, los ciudadanos y ciudadanas volveremos a mostrar nuestro protagonismo en la cadena humana. La ciudadanía de Euskal Herria demostrará que tiene la voluntad y determinación necesarias para iniciar ese nuevo ciclo y que está preparada.

Tenemos claro que el camino lo debemos recorrer juntos, agentes, instituciones y ciudadanía, cada uno en su ámbito de actuación, pero todos y todas en la misma dirección. Eso es, precisamente, lo que mostraremos el próximo 27 de mayo.

A través de esta carta Gure Esku Dago quiere invitarte a participar en el acto que celebraremos en el Anfiteatro de Gernika el 27 de mayo. En ese acto se dará lectura a la declaración que os adjuntamos.

De cara a facilitar la organización del acto os agradeceríamos nos confirmarais vuestra asistencia rellenando el formulario que encontraréis en el siguiente enlace:

https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSdf3_RqVeIADsDg3tFJx14KePDpeXFegs0qgXKihnaa8YizLw/viewform

Esperando que el 27 de mayo nos acompañes,

Jaso ezazu agur bero bat,